



Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |
Revista de estudios vascos | Basque studies review

14 | 2010
Numéro XIV

Genero indarkeria euskal literaturan

Gema Lasarte Leonet



Édition électronique

URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/2274>

DOI : 10.4000/lapurdum.2274

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Édition imprimée

Date de publication : 1 octobre 2010

Pagination : 77-87

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Gema Lasarte Leonet, « Genero indarkeria euskal literaturan », *Lapurdum* [Linean], 14 | 2010, Sarean emana---an 15 septembre 2014, kontsultatu 30 avril 2019. URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/2274> ; DOI : 10.4000/lapurdum.2274

Lasarte Leonet G. | IKER

Genero indarkeria euskal literaturan

Gema LASARTE LEONET
UPV/EHU

Hitz gakoak: genero indarkeria, protagonista femeninoak, euskal literatura, paradigma aktantziala, indarkeria sinbolikoa, hizkuntza sexista.

1. Sarrera

Artikulu honek egun indar betean dagoen kezka eta diskurtsoa dakar orrialde hauetara. Kapituluak bi alde nabarmen ezberdin izango ditu. Hasteko, genero indarkeriaren inguruan eraikitako marko kontzeptuala landuko da. Etxeko indarkeria, genero indarkeria, familiako indarkeria, emakumearen kontrako indarkeria. Kontzeptu horietan generoaren erabilpena edo parte hartzea ikusiko da.

Bigarren partean, alderdi literarioa landuko da, eta horrek bi atal izango ditu. Batetik, biolentzia nolabait modu mikroskopikoan ikusi ahal izateko, edota eszenifikatu ahal izateko, narratologiaz baliatuko gara. Pertsonaia protagonista femeninoak aztertuko dira. Horretarako, ahotsen kudeaketa ikusiko da, eta koadro aktantzian indarkeria nola kudeatzen den irudikatuko da. Indarkeriaren kudeaketa pertsonaiengan, ez ezik, espazioetan ere nola kokatzen den ikusiko da. Bestetik, indarkeriaren alderdi semantikoa neurtu nahi izan da eta horretarako indarkeria sinbolikoaren sorrera neurtu da, hizkuntza sexista aztertuz.

Artikulu hau idazteko orduan, emakume idazleen eleberrigintza izan dugu kontuan, eta hiru eleberririk aukeratu dira azterketarako: Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* (2009); Aitziber Etxeberriaren *Tango urdina* (2003) eta *31 baioneta* (2007), eta Laura Mintegiren *Bai baina ez* (1985).

2. Landuko diren nobelak

Esan behar da euskal literaturan ez dela hau gai bat oso hedatua emakumezkoek idatzitako kontagintza garaikidean; izan ere, oso eleberririk gutxitan ikusi dugu protagonismoa hartzen. Uxue Alberdik, *Aulki-jokoa* eleberrian (2009), gerra garaiko emakumeen kontrako indarkeria azaldu digu. Aitziber Etxeberriak, *Tango urdina* eleberrian (2003), tratu txarrak ditu gai nagusitzat. Genero indarkeria hau etxeko indarkeria dugu: senarrak sistematikoki tratu txarrak ematen dizkio emazteari. Eta azkenik, Laura Mintegik beste indarkeria mota erakutsi digu *Bai baina ez* (1985) eleberrian, aita batek bere alabari sistematikoki eragiten dion sexu-abusua. Horiek hirurak aztertuko ditugu lan honetan. Horietaz gain, tratu txarrak aipatzen dira Dorleta Urretabizkaiairen *Jaione* eleberrian. Eleberririk horretan mutil ohiak, elkarren arteko harremana hautsi ondoren, jazarpena egiten dio protagonistari, telefonoz nahiz kalean. Bestalde, *Jaione*-n aita-amen arteko elkarrizketa oso bortitzak ikusten dira. Arazoa da aita lanik gabe dagoela eta emaztea dela familiako ekonomia sostengatzen ari dena. Beraz, *Jaione*

eleberrian bi harremanetan ageri da genero indarkeria. Aitziber Etxeberriak, bestalde, gerra garaian emakumeek nozitzen duten indarkeria agertzen du *31 baioneta* (2007) testuan. Eleberri horretan, 1813ko uda agertzen zaigu, Donostia Napoleonen tropen mende dagoela. Gerra egoera horretan, baserritik hirira etortzera behartutako ama-alaba batzuen historia kontatzen zaigu. Donostiak tropa anglo-portugaldarrek eragindako setio eta suteak biziko ditu. Guda giro horretan, soldadu anglo-portugaldarrek behin eta berriz bortxatuko dute alaba gaztea, Espainiako Independentzia Gerra azkenetan badago ere, alabarentzat bizitza guztirako sufrimendua eta estigmatizazioaren hastapena izango da; izan ere, emakumearen gorputza Adrienne Richen (1978) hitzetan, patriarkatua gauzatzen den lurraldea da.

3. Marko kontzeptuala

Kultura analisietan, kontzepturik erabilienak “etxeko indarkeria” eta “genero indarkeria” dira. Osbornek (2009: 28) dio “etxeko indarkeria” kontzeptuak informazioa ezkatutu eta lausotu egiten duela; horrela, indarkeriaren objektua eta subjektua zein diren ez duela zehazten, eta, are gehiago, indarkeria horren azken helburua zein den ez duela esplizitatzen. Bestalde, etxe barruan gertatzen den indarkeria guztia aurreikusten duela eta etxetik kanpora bikote artean izan daitekeen genero indarkeriari ezikusia egiten diola. Gauzak horrela, gure lanari begira, kontzeptu hori erabiltzeak zailtasunak dakarzkigu narratologiari jarraikiz egin beharreko koadro aktantziala egiteko.

Etxeko indarkeriarekin alderatuta, “genero indarkeria” kontzeptuak xehetasun gehiago aurkezten ditu. Generoaren kontzeptuak gizon-emakumeen arteko harremanak ditu gunetzat, eta ez familia. Etxea edo lekua zeinahi dela ere, emakumeen kontrako edozein indarkeria aurreikusten du genero indarkeriak. Baina kontzeptu horrek ere badu akatsik eta legeak hala jaso du. Genero indarkeria bikotekideen artean gertatzen denean, penalki gehiago zigortzen da; bikotez kanpo, kalean nahiz lanean, gerta daitezkeen indarkeriak, ez dira modu berean tipifikatzen (Osborne, 2009; Larrauri, 2007). Elena Larraurik (2007: 44) genero indarkeriaren hiru aldagai azpimarratzen ditu: bikotearen kontrola lortzeko buruturiko barru-barruko terrorismoa; barru-barruko terrorismoaren kontra emandako erantzuna; eta azkenik, kontrolarekin eta boterearekin lotua ez den indarkeria, gatazka baten edota gatazka batzuen ondoren gerta daitekeena.

Beste kontzeptu bat erabiltzen dena “familia indarkeria” da (Larrauri, 2007). Baina horrek ez du zer ikusirik gizon-emakumeen arteko harreman afektuzko nahiz erotikoeekin. Etxeko indarkeriaren antzera, kontzeptu zabalegia da koadro aktantziala zedarrizteko. Terrorismo tipo batzuetan biktimek izandako harrerak (Osborne, 2009: 28) terrorismo familiar edo terrorismo sexual kontzeptuen erabilpena ekarri du. Baina kontzeptu horrek ere kanpoan uzten ditu indarkeriaren hainbat alde, laneko sexu-jazarpena edota jazarpena soilik. “Feminizidio” terminoa ere erabili izan da, emakumeen kontrako indarkeria sexualari egokitzuz kriminologian erabiltzen den eraiketa sistematikoaren kontzeptua. Mexikon, Ciudad Juárezen gertatzen direnak kasu. Sarritan erabiltzen dena beste kontzeptu bat emakumeen kontrako indarkeria da. Kontzeptu horrek interesgarria du objektua zehaztua duela, ez ordea subjektua edo indarkeriaren xedea (sexista, lapurreta edo bestelakoa). Kontzeptu hauek guztiak eremu batean baino gehiagotan erabil ditzakegu. Orokorrena indarkeria sexuala dugu. Indarkeria sexuala dagoela esaten da ekintzak eduki sexuala duenean, eta modu ez adostuan, nahi gabe (Bourke, 2009; Larrauri, 2007), indarkeria fisikoaz edo indarkeria fisikorik gabe

gertatzen denean. Emakumeak menderatzeko erabiltzen den indarkeria horren baitan leudeke indarkeria mota guztiak, hala nola indarkeria sinbolikoa, publizitate-jazarpena; bortxaketak; tratu txarrak; sexu-jazarpena eta gerrak, genero indarkeria... (Osborne, 2009; Bosch eta Ferrer, 2002).

Kontzeptuekin jarraituz, Esperanza Bosch eta Victoria Ferrerek (2002: 34-36) terrorismo patriarkala eta domestikoa edo indarkeria patriarkala aipatzen dituzte, baina dena terrorismo misogino kontzeptuaren barruan sartzen dute; izan ere, emakumeen kontrako mespretxuan oinarritzen dute indarkeria guztia. Kontzeptu hauetan guztietan aipatu ez duguna maiztasuna da. Izan ere, indarkeria bi motatakoa izan daiteke: puntualki modu esporadikoan erabili daitekeena edota ohiturazko indarkeria (Larrauri, 2007, Bosch eta Ferrer, 2002), hau da, sistematikoki erabiltzen dena, nagusitzeko edota kontrolatzeko. Luis Boninok (1995: 201-203) tratu txar psikologikoei mikromatxismo izena jarri die eta hiru klasetakoak aipatu ditu: koertzitiboak, ezkutukoak eta krisialdikoak. Boninoren kontzeptu horren eta Pierre Bourdieuren (2000) indarkeria sinbolikoaren artean badira analogiak.

Philip Hallie-k, *The Paradox of cruelty* (1969) liburuan, benetako krudeltasunaren dekalogoia idatzi zuen. Indarkeria mota ezberdinak neurtzeko modu bat bada ere, guk genero indarkeria neurtzeko beste lanabes bat bezala aurkezten dugu.

Benetako krudeltasunaren dekalogoia, Philip Hallie, *The Paradox of cruelty* (1969), (Zulema Moretek jasoa, 2000: 213)

I	Krudeltasuna bizitza mota bat mutilatzeko modu bat da. (26 or.)
II	Botere, inpotentzia, agresibitate eta pasitibitate harreman bat dago.
III	Boteretsuaren eta inpotentearen arteko hartu-emanean, diferentzia ez dago soilik bere nortasunean, aurkitzen den egoeran baizik. (34 or.)
IV	Mendekotasun egoera bat izaten da. Kaltegilea kaltetuaren mugimendu askatasuna murrizten ahaleginduko da.
V	Kaltegileak kaltetua bahitu eta isolatu behar du, biktimizazioa eragiteko denbora behar duelako. (22 or.)
VI	Kaltegilearentzat, kaltetuaren mina ez ezik, biktimarekiko sortzen den mendekotasuna eta autoritatea ezinbestekoak dira. (26 or.)
VII	Izuekin bukatzen den prozesua normalean jarrera onberekin hasten da. (24 or.)
VIII	Kaltetuaren aurpegia gune nagusia da. (31 or.)
IX	Krudeltasunak hiru partaide ditu: boteretsu bat, ahul bat eta ezezagun bat. (26 or.)
X	Krudeltasunaren antitesia borondatea da.

Bukatzeko, esan daiteke, beraz, genero indarkeriaren kontzeptua oso zabala dela, haren barruan indarkeria anitz kontzeptualizatzen delako, baina denak badutela zerbait komun: indarkeria emakumeei eragiten zaiela, emakume izate hutsagatik, eta erotikoa dela. Hainbat kontzeptu azaldu dira honen inguruan, eta beste hainbat sailkapen. Horien artean, batzuk aipatzearren, eremu publiko eta intimoen artean egindako bereizketa; beste sailkapen bat, maiztasunari begira egina; beste bat, tratu txar fisikoak edo emozionalak diren erreparatuz, azken horren baitan harturik indarkeria sinbolikoa. Azken horren definizioa eman nahi izan dugu, azterketan zehar sarri azaltzen den kontzeptua delako. Bosh eta Ferrerek diote indarkeria mota honek giza desberdintasunak naturalizat, zilegitzat hartzen dituela (dela arraza, generoa, klasea) eta horregatik oso zaila dela indarkeria honi aurre egitea (2002: 30).

Indarkeria sinbolikoak beste pertsonaren eraikuntza gutxietsia lekarke (Juliano, 2004: 68). Indarkeria sinbolikoaz haratago doa Juliano, eta ikusezin den indarkeriaz teorizatzen du (Juliano, 2004: 71-74). Bourdieuk, honen harira, gizonaren menekotasuna modu sumisoan onartzean ikusten du indarkeria sinbolikoaren sorburua (2000: 52-54).

4. Narratologiatik pertsonaiak aztertzen

4.1. Iruzkina

Uxue Alberdik *Aulki-jokoa* (2009)¹, Aitziber Etxeberriak *Tango urdina* (2003)² eta Laura Mintegik *Bai, baina ez* (1985)³ eleberrietan genero indarkeriaren inguruan diskurtsoak ahalbidetzeko ahotsak nola kudeatu diren ikusiko dugu.

Lehenik eta behin, esan behar da hiru eleberrietan narrazio denbora berdin kudeatuta dagoela, denbora tartekatua erabili ohi da eta. Batetik, gertatuko gauzak kontaktzen zaizkigu, iraganeko denboraren hautua eginez. Indarkeria sinbolikoa agerian ikusten den denbora, (Bb) eta (TU) eleberrietan, iraganeko denbora da, eta (AJ) eleberrian, aldiz, iraganeko denboran indarkeria sinbolikoa ez ezik, indarkeria gauzatua ere ikuskatzen da. (Bb) eta (AJ) eleberrietan oraina gogoeta denbora da, indarkeriak sorturiko saminen kontaketa denbora. (TU) eleberrian, ordea, oraina indarkeria gauzatzen ari den tenorea da, indarkeria sinbolikoak iraganean elikatutako gorrotoa kudeatzeko denbora. Beste modu batera esateko, hiru eleberrietan denbora ezberdinak eman zaizkio indarkeria sortzeari, gauzatzeari eta ikusteari edo kontatzeari. Balirudike, hartara, hitzezko ekintza eta indarkeria kudeatu duten aktoreen artean denbora bat jarri nahi izan dela, batez ere, indarkeriaren sorrerari eta gauzatzeari modu zehatzean begiratu ahal izateko. Horrela, (AJ)n gerra da indarkeria sinboliko nahiz fisikoaren sortzailea, (TU) eleberrian protagonista maskulino eta erasotzailearen haurtzaroan, gizontzea tokatzen zaien tenorean, jasandako zauria eta trauma dira indarkeriaren sorburua.

Azkenean, bere gaitz guztietatik sendatuko zuen edabe magikoa topatu zuen. Semea. Seme hark bere aitak kendu ziona itzuliko zion eta aldi berean, Manolak bere aitak inoiz eman ez zion maitasun hura emango zion. (TU, 21)

1. Hemendik aurrera (AJ) erabiliko da *Aulki-jokoa* izendatzeko.

2. Hemendik aurrera (TU) erabiliko da *Tango urdina* izendatzeko.

3. Hemendik aurrera (Bb) erabiliko da *Bai, baina ez* izendatzeko.

(Bb) nobelan, protagonista maskulinoaren abandonuan, tristuran, alkoholaren eraginean sortuko da intzesturako joera. Idazleek indarkeria sinbolikoa iraganean paratu dute, denbora bat eman diote ernetzeko, eta orainean gauzatu eta kontatu dute. Narratzaileak, beraz, aldi bereko kontaketa eta lehenagoko kontaketa baliatu dira denbora ezberdinen garrantzia azaltzeko.

Narrazio mailan, narratzailea kontatzen zaigun istorioaren barruko pertsonaia dugu (AJ) eta (TU) eleberrietan, ez ordea (Bb) eleberrian, narrazioa maila estradiegetikoan ematen baita. Narratzaileak duen funtzioa edo parte hartzea ikuskatzeko orduan, azken eleberri horretan, narratzaileak ez du inongo erlaziorik istorioarekin, narratzaile heterodiegetikoa dugu. Ez da gauza bera gertatzen beste bi eleberrietan, narrazioa protagonisten ahotsetik baitator: (TU) nobelaren kasuan narratzaile homodiegetikoa dugu eta (AJ) eleberrian autodiegetikoak ditugu, protagonistek hartzen baitute ahotsa. Hala ere, esan behar da ahots polifonia handia dagoela eleberrietan; izan ere, bistan da ahots ezberdinen bidez irudikatu nahi izan dutela idazleek genero indarkeria. Narratzaileek, pertsonaiek eta pertsonaien artean protagonista ez diren hirugarren eta laugarren mailako pertsonaiek ere hitza hartu dute genero indarkeriaren inguruan gogoeta egiteko. Garrantzizkoa da kontu batez ohartzea: eleberri hauetan biktimari ematen zaio ahotsa, eta narratzaile-protagonista izateak garrantzia du.

Denbora tartekatua genero indarkeriaren errealtatea islatzeko zoom bezala erabili bada, indarkeriaren denbora ezberdinak zehazteko alegia, ahots polifoniak juxtu kontrako efektua egitera dator, ahalik eta eremurik zabalena erakustea baitu asmo. Baina kontaketa distantziak jarri dituzte. Alberdik narrazioa modu autodiegetikoan kudeatu du, bertatik bertara. Etxeberriak pertsonaia lotu ditu genero indarkerian, baina protagonista nagusiari, erasoak jasaten dituenari, hain zuzen ere, ahotsa kendu dio. Azkenik, Mintegik genero indarkeria narratzeko orduan hirugarren pertsona gramatikala hautatu du eta genero indarkeria historiaz kanpoko narratzaile batekin eta istorioarekin ezer ikusi nahi ez duen narratzaile batekin burutu du. Idazleek gaierik hartzen duten distantzia, narrazio mailan eta pertsonaren erabilpenean, agerian geratzen da. Alberdik indarkeria jasandako protagonistari hitza eta protagonismo osoa ematen dio; Etxeberriak, aldiz, eta hor dago eleberriaren indar zentrifugoa, protagonista nagusiari hitza kendu eta gainerako guztiei ematen die. Balirudike errealtatean gertatzen denaren analogia egin duela Etxeberriak, indarkeria jasaten dutenak isildu egiten baitira kasurik gehienetan (Bourke, 2009: 24), eta, aldiz, indarkeria hori ikusten dutenek hitz egiten baitute gehien.

Fokalizazioari dagokionez, (Bb) eleberrian ez dago, eta (TU) eta (AJ) eleberrietan, aldiz, barne fokalizazio aldagaria aurkitzen dugu.

4.2. Koadro aktantziala

Narrazioaren ekintzan izaki batek betetzen duen funtzioaren arabera definitzen da aktantearen izaera. A.J. Greimas (1983) izan zen, L. Tesnièreren (1965) gramatika estrukturalaren terminoek baliatuz, *actant* hitza literatur azterketara egokitu zuena.

Aktanteen eskemak sei eragile proposatzen ditu. Ekintzaren subjektu-objektuak. Subjektuak ekintzari printzipio dinamikoa eskaintzen dio: desirari, nahiari, beldurrari, eta abarri erantzunez. Sentituriko beharra, beldurra edo nahia da objektua, subjektuak lortu nahi duena. Hartara, desira edo nahia da bi aktante horiek uztartzen dituen (ikus Retolaza, 2008: 25).

Ekintzaren bidaltzaile-jasotzaileak. Bidaltzaileak subjektuari eragiten dio, zeregin bat jartzen

dio edo eginarazten dio (gizartea, patua...). “Bidaltzaileak subjektuari izate kognitiboa duen objektu bat komunikatzen dio” (Reis & Lopes, 2002:60). Hartzailea ekintzaren onuraduna izan daiteke; askotan, protagonista bera izan daiteke. Ekintzaren laguntzaile-aurkariak subjektuari bere zereginen lagunduko dio edota estropezuak jarriko dizkio. Eskema honako hau genuke:

Eragilea	Objektua	Hartzailea
Laguntzailea	Subjektua	Aurkaria

Genero indarkeria honela kudeatuko litzateke, oro har, eta horrela kudeatzen da aztergai ditugun hiru nobeletan: (TU), (Bb) eta (AJ):

Patriarkatua	Boterea	Emakumeak
Gizartea	Gizonezkoak	Emakumeak (feministak)

Genero indarkeria horrela kudeatzen da patriarkatuak oraindik modu hegemonikoan bizirik dirauen gizarteetan: gizonezkoek euren hegemoniari eusteko desira erakusten dute. Beraz, eragilea patriarkatua genuke. Eragileak subjektuari behar hori jakinarazten dio (indarkeria sinbolikoaren bidez) eta subjektuak badaki, bere giza hegemoniak bizirik jarrai dezan, emakumeen boterea neutralizatu egin behar duela. Beraz, subjektuak objektutzat boterea du eta hori lortzeko emakumeen kontrako erasoak aktibatuko ditu (indarkeria tipo guztiak). Indarkeria sinboliko nahiz fisiko guztia pairatuko dutenak emakumeak dira. Eta patriarkatuak gizonezkoek ezarritako zeregin honetan laguntzaile, berriz, gizonezkoen hegemonia legitiimatzen laguntzen duen oro da, emakume nahiz gizon. Eta aurkariak berriz, bidegabekeria ikusi eta emakumearen berdintasuna aldarrikatzen duten gizon nahiz emakumeak.

Hiru eleberrietan koadro aktantzial hori ageri da, baina baditu bere berezitasunak. Esaterako, (AJ) nobelan, gerretan emakumeek jasaten duten indarkeriaren paradigma aurkitzen da. Armadek eragiten dute patriarkatuaren defentsa (Rich, 1983; Cockburn, 2007).

(Bb) eta (TU) nobeletan indarkeriak bi bide hartzen ditu. Batak tratu txarren berri ematen digu, eta besteak, berriz, pederastia edota aita batek alabarengan eragiten dituen abusuen berri ematen digu. Baina bietan koadro aktantzialak berdin funtzionatzen du; pertsonaien izenak aldatu beharko genituzke.

Patriarkatua	Desira (Bb), boterea (TU)	Rosa, Marga
Auzoa, auzokideak	Manolo, Paco	Ez da ikusten

4.3. Espazio kudeaketa

Espazioaren inguruan, gogoratuko dugu narrazioaren kategoriarik inportantenetakoa dugula hori, espazioak eratzen duelako lehenik ekintzaren garapenaren eszenatokia (Reis & Lopes, 2002; Garrido Dominguez, 1993). Garapen horretan espazioak bi eremu gara ditzake:

Patriarkatua	Ohorea kendu	Teresa (kontrako bandoko emakumeak)
Soldaduak	Armada	Inor ez

psikologikoa eta soziala.

Genero indarkeriaren kontzeptua lantzeko orduan, luze eta zabal mintzo gara indarkerien inguruko subjektu, objektu nahiz espazioaz (ikus artikulu honen sarrera). Izan ere, genero indarkeria aztertzeko, hiru alderdi horiek izan dira kontuan. Eta genero indarkeria, besteren artean nagusiki, hiru gunetan kokatzen dela esan daiteke: gerretan, etxean eta kalean (prostituten kasuan). Ikertu berri ditugun eleberrietan bi espazio nabarmendu dira: (AJ) eleberrian, plaza, eta beste bi eleberrietan, etxea.

Espazioak lantzeko orduan geure egin ditugu R: Wellek-en eta A. Warren-en (1948: 265) hitzak; espazioak, alegia, gehienetan pertsonaiaren metonimia edo metafora bezala funtzionatzen duela, eta kasu hauetan esan daiteke, genero indarkeriaren helburu behinena emakumearen suntsipena izanik, espazioak ere hartaratu egiten direla. Hartara, emakumeen ohorea ezabatzea helburutzat du genero indarkeriak gerra kasuetan (Cockburn, 2007; Rich, 1983; Castells, 2007; Bourke, 2009), eta hori da (AJ) nobelaren kasua. Lekurik publikoaren hautua egiten da kontakizun horretan. Erreketeeek Teresari plazan denen aurrean ilea moztzen diote, lehenagotik gizonetakoak fusilatu dituzten leku berean. “Oineko atzamar luzea jokatu nuke herrenek ez zuela damu-izpirik sentitu Berdura Plazakoa gertatu zenean”. (AJ, 12). Beraz, armadak leku publikoak aukeratuko ditu; aldiz, tratu txarrak eta abusuak etxean gertatzen dira, modu isilean. Horrela da (Bb) eta (TU) nobelan. Fokalizazioak lekua espazio bihurtzen du (Dominguez Garrido, 1993; Bal, 1985), eta, beraz, balio semantiko berezia eranstean dio. Indarkeria armadatik datorrenean, kasu honetan bederen, mundu guztiak ikustea du helburutzat, ez aldiz, tratu txarrak edo abusuak gertatzen direnean, fokua erabat itxi egiten baita, indarkeria ikusezin edo isiltasun bihurtu nahian. Horretarako, espazioa hertsia egiten da, eta etxea bihurtzen da indarkeria mota horretarako gune apropos.

Etxea berez izakia bera da (Azpeitia, 2001: 127). Bachelordek (1957) dio bitzita gozo hasten dela etxearen altzoan, etxea gure lehen unibertsoa dela. Etxeari esker gure oroitzapen askok aterpea dutela. Bachelordek etxearen zatiak deskribatzen ditu, teilturantz, pentsamendu guztiak argia dutela esanez, eta sotoa, ordea, etxearen lekurik ilunena dela, lurpeko botereen gunea dela. Eta (TU) nobelan sotoa tratu txarren sorburu legez azaltzen da. Manolok hantxe ospatu baitzuten bere lehen txerri bodak. Umea zela artean, odola jaso behar zuen Manolok, baina zorabiatu eta goraka hasi zen; horrek aitaren haserrealdia piztu zuen, eta gainerako guztiak aurrean haren irainak jaso behar izan zituen. Hortxe abiatzen da Manoloren ezina eta gorrotoa, gerora bere emaztearekin kitatuko duena.

Sotoan hasten da nobela honen espazio kudeaketa, eta 9 solairu dituen eraikuntza batean kokatzen da genero indarkeriaren gauzatzea. Manolo eta Marga bizi diren solairuan kokatzen da eleberraren egite garrantzitsuena eta espazioa. Espazio horren jira bueltan entzuten diren ahots eta garrasiak dira eleberraren ardatz nagusia. Eskailerak, patioa, igogailua.

—¡A mí no me hables así! —jarraian izugarritzko iskanbila entzun dugu, korrika saio txikiak, arrastaka dabiltzan aulkien hotsak, lapiko edo metalezko mahai tresna baten erorketa eta batez ere oihuak. (TU, 139).

Bachelarden etxearekiko konnotazio gozoak oso modu diferentean ikuskatu ditu, ordea, perspektiba feministak, etxea nahiz familia kartzelaldi gisa ikusi baitira feminismo klasikotik. Etxea, ikuspegi soziologikotik, batasun familiarra eta espazio ekonomiko ekoizle ez ezik,

gizon eta emakumeen artean eraikitzen diren botere harremanen isla ere bada (Alvarez Veinguer, 2007: 246). “La pertenencia al espacio doméstico se presenta como indisoluble en la construcción de género femenino, normativamente encardinado en la vida de las mujeres” (Murillo, 1996: 15). Kontrol gune, koakzio nahiz frustrazioen lekutzat ere hartzen da; hitz batean, bizitza iraunarazteko eta gauzatzeko espazioa da etxea (Alvarez Veinguer, 2007: 247). Ikuspegi hori kontuan, (TU) eta (Bb) eleberrietan, ikusi dugun paradigma aktantzialeko aktante bakoitzak genero indarkeriarekiko duen funtzioari aterpea jarri dion gunea da etxea.

Rosa eta Margaren kasuan, genero indarkeria gauzatzen den pertsonaien metonimia baldin bada etxea, eta Teresarenean plaza, bada beste espazio bat indarkeria elikatzera datorrena, baina erabat heterotopikoa dena eta (Bb)n azaltzen dena: Margoten etxea edo putetxea da. Espazio hori, edo kontraespazio hori, Franz gizonezko protagonistari lotua azaltzen da, haren desira beharrak hantxe betetzen baitira, beste lekurik ezean. Aurrera daiteke espazio mota hau emakume idazleek apenas landu dutela euskal literaturan. Mintegik beste hiru espazio aipatzen ditu erabat lotuak indarkeria sinbolikoarekin: eskola, kalea eta igeltseroak lanean diharduten obra. Edonola ere, espazio horiek batik bat hizkuntza sexista aztertzeke orduan ikusi dira, hain zuzen ere, beronen sorlekua direlako nobela honetan.

5. Indarkeria sinbolikoaren neurraketa semantikoa

5.1. Hizkuntza sexista

Hizkuntza sexistaren errietara joateko, nahitaezkoa da indarkeria sinbolikoaren hainbat alderdi ikustea. Indarkeria sinbolikoa hizkuntzaren funtsean dagoela kontuan izanik, xehetasun gehiago emango ditugu jarraian. Carolyn Heilbrunek *Escribir la vida de una mujer* idatzi zuenean horrela zehaztu zuen (1988: 21):

Boterearen benetako aurkezpena ez da gizon bat bera baino txikiago den gizon bat edota emakume bat jotzen ikutaraztea. Boterea da diskurtsoetan leku bat edukitzeko gaitasuna izatea. Eta hau egia da Pentagonoan, senar-emazte artean, adiskidetasunean eta politikan.

Dolores Julianok esan ohi du gizonezkoen emakumeekiko boterea eremu sinbolikoan ematen dela, hizkuntza despektiboan, gutxiespenean eta estigmatizazioan (Juliano, 2004: 140). Adrienne Rich haratago joan zen eta isiltasunaz mintzatu zen (Rich, 1983:18).

Robin Lakoff-ek (1981: 85) hizkuntza sexista ikergai zuela, kortesia, emakumeen gaineko hizkuntza, eta emakumeen hizkuntzaren arteko harremanez jardun zuen. Eta berak zioen hizkuntza irakasteko garaian, fonologiaz, sintaxiaz eta semantikaz gain, hizkuntzaren alderdi soziala irakatsi behar zela. Lakoff-en esanetan, emakumeen hizkuntzak gehiegizko zuzentasun gramatikala eta konnotazio defentsibo ugari erakusten ditu. Horren harira, Adelina Sánchez Espinosak dio hizkuntza berau erabiltzen duen gizartearen isla dela. (Sánchez Espinosa, 2007: 19).

Komunikazio ekintza ez da neutroa, ez da informazio bat bakarrik igortzera mugatzen, baizik eta pertsonen arteko hartuemanen berri ematen du, harreman hauek menekotasun, sumisio edota berdintasun harremanak izan daitezke. (Fernández Fraile, 2007: 26)

Mespretxua, iraintzeko bidea edota umiliatzeko modua izan daiteke hizkuntza. Hartara,

sexismoa edo arrazismoa adieraz dezake hizkuntzak. Gizartearen eta hura osatzen duten kolektiboen arteko harremanen berri eman dezakete hizkuntzaren egiturek nahiz lexikoaren erabilpenek. “Ez gara egitura lingusitikoaz ari, baizik eta diskurtsoetan aurkezten diren egiturez, edota hitzaren erabilpen sozialaz...” (Fernández Fraile, 2007: 28).

Tillie Olsonen hitzak bere eginez, hizkuntza sistema sinbolikoari erabat lotutako giza egitura patriarkala dela dio Annette Kolondyk: “Language as a symbolic system closely tied to a patriarchal social structure. Taken together, their work demonstrates. The importance of language in establishing, reflecting, and maintaining an asymmetrical relationship between women and men” Kolondy (1979: 5). Artikulu berean, Helene Cixous-en esaldi bat bere egiten du Kolondyk: “Language conceals an invincible adversary”.

5.1.1. Iruzkinak

Hizkuntzak islatzen dituen gizonezko eta emakumezkoen arteko harreman horiek kontuan izanik abiatu dugu ikergai ditugun hiru eleberrien behaketa. Hizkuntza sexista azaltzen zaigu gizonezkoen ahotan (Bb) eta (TU) eleberrietan, ez horrela (AJ) eleberrian, emakumezkoena baita hitza. Hizkuntza sexista baino gehiago, gizonezko munduei egindako aipamenak azaltzen dira (AJ) eleberrian. Dorleta Urretabizkaiaren *Jaione* eleberrian genero indarkeria azaltzen den unean azaltzen da hizkuntza sexista.

Ondoriozta daiteke, beraz, emakume idazleek hizkuntza sexista batik bat gizonezkoen ahotan edota kaleetako txutxu-mutxuetan jartzen dutela. Mintegiren (Bb) eleberrian, igeltseroak obran azaltzen dira, mintzagaia sexua dute. “Alper horiek! Beti solasean, atso zaharrak ematen duzue; berbaldi gutxiago eta adreiluak pasa!. (Bb, 24); “Ei, ei, astiroago, nork edan zidan atzo gure botila, marikoiori?” (Bb, 8). Kaleko txutxu-mutxuak: “Pacoren alaba auzoko mutil guztiek inbiltzen dela, nahiko txoriburu ospea daukala, buruz arina, eta aitak, disgustuaren disgustuaz, edateari eman diola” (Bb, 80); “Lasai, Encarna, laster konturatuko dun eta etxetik botako din, hire nagusia ez dun tontoa eta putaska horrek ezin izango din engainatuta eduki luzaro” (Bb, 100).

(Bb) eleberrian, indarkeria sinbolikoarekin edota emakumeen desbalorizazioarekin lotua azaltzen da hizkuntza sexista; (TU) eleberrian, berriz, indarkeria fisikoarekiko eta erdararekiko lotura nabariagoa da: “Virginia, baja esa puta música!” (TU, 8); “Tu hija es una puta (...) ¡pues que tu hija está preñada y además de un golfo...” (TU, 41); “Una puta! ! Eso es lo que es para mí y no voy a tener bajo mi techo ningún bastardo”, (TU, 138). “¿Dónde cojones están mi mujer y mi hija?” (TU, 172), “Voyeur puta bat baino ez naizela bilakatu errepikatzen diot nire buruari” (TU; 14); “Josune urdanga zikin bat besterik ez da!” (TU,167).

(AJ) eleberrian, gizonezkoak ez dira ia mintzo, eta hizkuntza sexistarik ez da azaltzen ia. Emakumeen ahotan azaltzen dena garbiro da gizonezkoen mundu bat dagoela: “Alde hortik zokomirona! Gizonen kontuaz ari gaitun”. (AJ, 57); “Garai hartan ikasi nuen ohoreaz gain, apustuez eta giltzaz itxitako tiraderaz gain, bazela gizonena zen beste gai bat, gerra.” (TU, 79); “Bizarra ditzen kontu horiek, Marti!” (AJ, 84). “Lubakitik idatzitako gutunak gerra dira; sukaldetik erantzundakoak, ez”. (AJ, 89).

(AJ) eleberrian topaturiko adiera sexista bakarra soldaduen ahotan jarri du Uxue Alberdik. “Eta bi soldaduak *cobarde hijo de puta* esaten.” (AJ, 89).

Bukatzeko, Osbornek laneko jazarpenen inguruan, piropoak edota komentario sexualak aipatzen ditu (2009: 147). (TU) nobelan topatu dugu horrelakorik eta berriro ere gizonezkoen ahotan eta lan giroan. Idazkariak ohi baino gona laburragoa darama nonbait eta honen inguruan.

“–Ostia, hi, ikusi al duk gaur gure Karmele! –Jexux Mari astapetroaren hitz goxoak izan dira entzun ditudan lehenak–. Zer duk, enpresaren politika berria? Mutilak, aurrekontuaren murriztasuna dela eta, aurtengo neguan berogailutan gutxiago gastatzea erabaki dugu, beraz, berotu nahi duenak idazkariari begiratu diezaiola.” (TU, 30).

6. Ondorioak

1. Memoriaren, nazioaren eta amatasunaren gaiak euskal emakume idazle gehienek beren eleberrigintzan jorratu badituzte ere, genero indarkeria gai nagusizat hartuta oso gutxi landu da. Beraz, datu soziologikoetan, genero indarkeriaren inguruan hain diskurtso hedatua badago ere (kontzeptuetan, legeetan, datuetan), euskal literaturan emakume idazleek erreparatu handiz hartzen dute gaiak. Balirudike komunikabideek mediatizatzen duten gai honen eta euskal literaturan emakumeek itxuratzen duten genero indarkeriaren artean oraindik alde handia dagoela.

2. Denbora tartekatua genero indarkeriaren errealitatea islatzeko zoom bezala erabili da, indarkeriaren denbora ezberdinak zehazteko alegia; ahots polifoniak, ordea, kontrako efektua egiten du, ahalik eta eremurik zabalena erakustea baitu asmo. Beraz, genero indarkeriaren lekukotasuna emateko ahots polifonia eta denbora tartekatua erabili ohi dute aztertu ditugun emakume idazleek, hartara indarkeria ezberdinak angelu ezberdinetatik eta denbora ezberdinetan ikusteko

3. Bestetik, ondoriozta daiteke emakume idazleek hizkuntza sexista batik bat gizonetzkoen ahotan edota kaleetako txutxu-mutxuetan jartzen dutela, eta ez hainbeste pertsonaia femenino protagonistak hitz egiteko orduan. Ahotsa, narratzailea edo fokua gizonengan dagoenean gertatzen da hizkuntza sexista, beraz.

4. Genero indarkeria sistematikoki bizi duen emakume protagonistaren ikuskera aurkezteko, ahots polifonia eskaini digu Aitziber Etxeberriak. Horregatik bihurtzen da hain sinesgarria ahotsik ez duen protagonista. Ondoriozta genezake, beraz, isiltasunetik, ukapenetik memoria lantzen hasi direla emakume idazleak, baina ondo ezagutzen dituztela genero indarkeriaren nondik norakoak eta jakin badakitela emakume jipoituak aurkeztu ahal izateko berriro ere ahotsik gabeko emakumeak sortu behar dituztela.

7.-Bibliografia

- Alberdi, U., 2009. *Aulki-jokoa*, Donostia: Elkar.
- Alvarez Veinguer, A. 2007. “El universo sexuado: cuerpos invisibles pero imprescindibles. Una aproximación a experiencias de mujeres, de la Europa del Este que realizan trabajos domésticos”. In: Muñoz Munoz, A.M. ; Gregorio Gil, C.; Sámchez Espinosa, A. (Koord) (2007) . *Cuerpo de mujeres: miradas, representaciones e identidades*. Granada: Feminae, Granada. 245-263 orr.
- Azpeitia, M., 2000. *Piel que habla. Viaje a través de los cuerpos femeninos*. Bartzelona: Icaria.
- Bachelard, G. 1957. *La poética del espacio*. Mexiko: F.E.C.
- Bal, M. 2001. *Teoría de la narrativa*. Madril: Cátedra.
- Bonino, L., 1995. “Desvelando los micromachismos en la vida conyugal”. In: Corsi, J. (1995) *Violencia masculina en la pareja. Una aproximación al diagnóstico y a los modelos de intervención*. Buenos Aires: Paidós. 192-208 orrialdeak.
- Bourdieu, P. 2000. *La dominación masculina*. Bartzelona: Anagrama.
- Bourke, J., 2009. *Los violadores. Historia del estrupo de 1860 a nuestros días*. Bartzelona:

Crítica.

- Bosch, E., Ferrer, V. 2002. *La voz de las invisibles. Las victimas de un mal amor que mata*. Madril: Feminismos, Cátedra,
- Castells, M., & Subirats, M., 2007. *Mujeres y hombres ¿Un amor imposible?*. Madril: Alianza Editorial.
- Cockburn, C., 2007. *Mujeres ante la guerra. Desde donde estamos*. Bartzelona: Icaria Antrazyt.
- Etxeberria, A. 2003. *Tango Urdina*. Donostia: Erein.
- Etxeberria, A. 2007. *31 baioneta*. Donostia: Erein
- Fernández Fraile, M.G, 2007. "Algunas reflexiones sobre los usos sociales de ciertas expresiones lingüística". In: Muñoz Munoz, A.M, ; Gregorio Gil, C., ; Sánchez Espinosa, A. (Koord). (2007). *Cuerpo de mujeres: miradas, representaciones e identidades*. Granada: Feminae. 19-38 orr.
- Garrido Dominguez, A. 1993. *El texto narrativo*. Madril: Síntesis.
- Greimas, A.J. 1983 (1973). *La semiótica del texto, ejercicios prácticos*. Madril: Paidós Ibérica
- Heilbrun, C. 1988. *Escribir la vida de una mujer*. Madril: Megazul.
- Juliano, D. 2004. *Excluidas y marginales*. Madril: Cátedra, Feminismos.
- Kolodny, A., 1979. "Dancing through the minefield: some observations on the teory, practice and politicis of a femnist literary criticism", *Feminist Studies* 6, 1.zkia.
- Lakoff, R. 1981. *El lenguaje y el lugar de la mujer*. Bartzelona: Hacer Editorial.
- Larrauri, E., 2007. *Crimonología crítica*. Madril: Trotta,
- Moret, Z. 2000. "Esos cuerpos escritos con sangre: Del horror y lo abyecto en Gambaro, Álvarez, Eltit, Sivestre y Mendieta". In: Suárez Briones, B., Martín Lucas, M. B. & Fariña Busto, M. J. (Ed.) (2000). *Escribir en femenino*. Bartzelona: Icaria.
- Muñoz Muñoz, A.M.; Gregorio Gil, C.; Sánchez Espinosa, A.; (ed), 2007, *Cuerpos de mujeres, miradas, representaciones e identidades*, Feminae, Granada.
- Murillo, S., 1996. *El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio*. Madril: Siglo Veintiuno.
- Osborne, R., 2009. *Apuntes sobre violencia de género*,. Granada: Bellaterra ediciones.
- Reis, C., Lopes, A.C. 2002, *Diccionario de Narratología*,. Salamanca: Almar.
- Retolaza, I., 2008. *Literatura Terminoen Hiztegia*. Euskaltzaindia.
- Rich, A. 1978. *Nacida de mujer*. Madril: Noguer
- Rich, A., 1983, *Sobre mentiras, secretos y silencios*, Icaria, Bartzelona.
- Sánchez Espinosa, A. 2007. "Escribir los cuerpos de las mujeres". In: Muñoz Munoz, A.M, ; Gregorio Gil, C., ; Sámchez Espinosa, A (Koord) (2007). *Cuerpo de mujeres: miradas, representaciones e identidades*. Granada: Feminae, Granada. 18-22 orr.
- Tesnière, L. 1965 (1959). *Elements de syntaxe structurale*. Paris: Klincksieks
- Welleck, R., & Warren, A. 1948. *Teoría literaria*. Madril: Gredos.